

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Mimoz eta gogoz egindako metal lan irekia

Aspalditik ez genuen Bermeoko Ost taldearen berririk. Taldekide aldaketa batzuen eta taldeko abeslari Kapi Ken 7 taldearekin ibili izanaren ondorioz lozorroan egon dira ia sei urtetan, edo hori uste genuen guk. Hala ere, argi eta garbi erakutsi dute lanean jarraitu dutela. Hirugarren lan hau indartsua eta aberatsa da oso. Betiko metal gogor eta indartsua oinarri duten arren, beste hainbat estilorekin ere ausartu eta horiek menderatu dituzte: stonerra, post-hardcorea, rapeatuak, flamenkoa, thrasha... emaitzari nabardura bereziak emanez. Are gehiago, herrikide izan zuten Hilzorian taldearen *Txarto* berreskuratu dute eta Bjorken *Army of me* kantaren bertsioa ere egin dute. Sumatzen da hitzak ere gogoz idatzi dituztela, pentsaraztekoak dira-eta; eta Xanpekin diskoa grabatzen denbora luzea eman dutela.


Ostinato
OST

BAGA-BIGA

 Iraupena: 50'27"
11,50 euro

OST

«Disko hau ez zuen inork inoiz kaleratuko taldearen burugogortasunik gabe»

Zerk eraman zaituzte sei urte ostean agertokietara itzultzerara? Musika industrian krisia egotearen morboak?

Ez [barre]. Gu sei urte horietan ez gara geldi egon. Tarte horretan ez dugu kontzerturik egin, baina ez dugu taldea inoiz desegin, abesti berriak konposatzen ibili gara. Zerekin pareka daiteke zuentzako itsasoaren usaina ez hartzea?

Beno, hori metafora bat baino ez da, baina kostaldekoek ondo ulertuko dute zer esan nahi dudana... Itsasoa oso garrantzitsua da guretzat.

Ispilua kanta Euskal Herriko egoeraren deskribapen bat izan daiteke?

Bai, hortik dator, baina gure ustez beste giza taldeen arteko tentsio eta aurkakotasuna dagoen kasuentzat ere balio du.

“Nire azken helmuga da benetan egia bidea oztopatzea”. Zer ezkutatu nahi duzue?

Ezer ez. *Nabiz eta...* abestiaren hitzak singularreko lehen pertsonan daude idatzita, baina ez gaude gure kasua deskribatzen. Berba egiten duen pertsonaia politikoa da, Euskal Herrikoa. Ez dugu izenik emango, baina badakigu hemen nortzuk dauden eroso gauzak ez badira aldatzen politika munduan.

Txarto egokitu zarete itzulera honetan? Eta zer aholku emango zenieke Hilzorian taldekoei bueltatuko balira?

Gauza asko aldatu dira, baina ez gara “txarto” egokitu. Hilzorianek utzi egin zuenez, kantu hori grabatzeko



baimena eskatu genien. Ez ditugu aholkuak ematen, baina euren musika estiloa ez aldatzeko esango genieke.

Nondik dator *Ostinato* izena?

Latinez figura musikala da: moldaketa bat hainbat bider errepikatzean datza, obstinazio edo burugogortasuna adieraziz. Disko hau ez zuen inork inoiz kaleratuko taldearen obstinazio hori gabe. Horretaz gain, hitz joko bat egin dugu taldearen izena eta “nato” hitza batuz: “ost-etik jaioa”.

Metala bai, baina estilo askorekin ausartu zarete. Gogoz egindako lana da, ezta?

Bai, metala da gure oinarria, baina gure iturri eta eraginak oso zabalak dira.